Koofizialtasunaren aldeko manifestazioa

INDARRAK BATU, EUSKARAREN GARAIA DELA OHARTARAZTEKO

Euskararen aldeko hitzordu inportantea izanen da Baionan azaroaren 21ean, *Euskararen garaia da* lelopean, koofizialtasunaren aldarria jarriko duelako lehen lerroan Euskal Konfederazioak. Horrez gain, euskararen aldeko "hizkuntza politika eraginkor" bat eta "hizkuntza gutxituen aldeko lege babes ausart" bat aldarrikatzeko unea izanen da. Nola ez, azken aldiko euskararen kontrako prefetaren erasoak salatuko dituzte. Iazko abenduaren 27an Bilbon eta ekainaren 13an Iruñean bildu ondoren, euskalgintzak abiaturiko ziklo berriaren ondoko urratsa Baionakoa izanen dela argi dute antolatzaileek, eta Lapurdiko hiriburuan batzeko deia luzatu diete euskararen alde diren guztiei.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Kasik urtea pasa da Ipar Euskal Herriko euskalgintzaren prentsaurreko jendetsu hartatik. Urtarrilaren 26an eskaini zuen prentsaurrekoa Euskal Konfederazioak, hortik hamar hilabetera bideratuko zuen manifestazioaren berri emateko: azaroaren 21ean Baionako karrikak hartzera doaz euskararentzako koofizialtasuna aldarrikatzeko. Kasik 200 kolektiboren babesa jasorik, jendetsua eta askotarikoa aurreikusten da mobilizazioa.

Koofizialtasuna, horra hor aspaldian lehen lerroan egon gabeko aldarria. Deiadar manifestazioak gogoan ditugu, baina azkenetik hamaika urte pasa dira. 2015ean hartu zituzten Lapurdiko hiriburuko karrikak, koofizialtasuna aldarri, *Euskara hizkuntza ofiziala. Herri elkargoa!* lelopean 5.000 lagun inguru elkarturik. Orduz geroztik ez da erabat baztertua izan eskakizuna, finean, azterketak euskaraz pasatzearen aldeko borroka zein hizkuntza politika eraginkor baten aldeko eskakizuna, aldarri guztiek dutelako euskararen aitortza eza muinean. Baina, "funtsezkotzat" jo du Euskal Konfederazioak koofizialtasunaren galdeari "bultzada berri bat" ematea, "hizkuntza gutxitua biziberritzeko helburua duen hizkuntza politika bat hankamotz gelditzen delako hizkuntza hori ez bada behar bezala legez babesten".

Ipar Euskal Herrirako azken inkesta soziolinguistikoak azaleratu datuek kezkatzen dute Euskal Konfederazioa, eta EEP Euskararen Erakunde Publikoaren baitako desadostasunek ere handitu diote koofizialtasuna lehen lerroan ematearen beharra. Gaur egun %20,1 dira euskal hiztunak Bidasoaren iparraldean –55.000 hiztun izatetik 51.500 izatera pasa dira azken 20 urteetan– eta erabilpena %21,5ekoa da –horietan bakarrik %7,7ak du euskara frantsesa baino gehiago edo bezainbat erabiltzen–. Larritasunaz kontziente, euskalgintzaren erronka bere egin eta 2050erako euskal hiztunak %30 izatera heltzeko prospekzio soziolinguistikoa aurkeztu

EUSKAL KONFEDERAZIOA

Urtarrilaren 26an eman zuen azaroaren 21eko manifestazioaren berri Euskal Konfederazioak. Kasik 200 kolektibok dute babesa adierazi koofizialtasuna galdatzeko ekimenari.

zuen EEPk 2024ko ekainean: bilakaera demografikoan eta inkesta soziolinguistikoaren emaitzetan oinarrituta, 40.000 euskal hiztun gehiago beharko lirateke langa horretara heltzeko.

Aurrekontuaren emendiorik gabe nekez lortu daiteke, ordea, helburu anbiziotsu hori eta hori izan da mobilizazioari bultzada berri bat emateko Euskal Konfederazioaren arrazoia. Gaur egungo testuingurua sinplea delako: edo, azken aldietako aurrekontuarekin segitzen da eta Euskal Konfederazioak dioen bezala "euskara hiltzera kondenatzen" da, edo, %30eko helburua iparrorratz hartuta aurrekontua behar bezala emendatzen da. Hilabeteetako blokeoaren ondotik, aurrekontuaren emendio epelegiaren alde egin zuen EEPk iazko abenduan. Kide bakoitzak –Euskal Hirigune Elkargoa, Departamendua, Eskualdea eta Frantziako Estatua– 650.000 euroko emendioa onartu beharko bazuen ere, 100.000 euroko emendioaren alde egin zuen –euskalgintzaren helburuetatik eta egoera soziolinguistikoak eskatzen duen aurrekontutik biziki urrun–.

"Nola egin euskara biziberritzeko prozesua berriz abiatzeko? 2050erako %30 hiztunen langa erronka handia da, baina uste dugu ez dela fatalitaterik. Helburu hori ez dugu lortuko hizkuntza politika eraginkorrik gabe eta horrentzat euskararen estatutua aldatu behar da, koofizialtasuna behar da. Euskara frantsesa bezainbat garatua izatea nahi dugu, eta hori arlo eta sektore guztietan; ez gehiago, baina ez gutxiago ere", dio Euskal Konfederazioko ordezkari Sebastien Castetek.

Euskararen pizkunde berri baten beharrean, Bilbon elkartu ondoren abenduan eta Iruñean, berriz, ekainean, dinamika horren baitako hirugarren geldiune gisa kokatzen du Baionako hitzordua Castetek. Hain justu, koofizialtasuna galdetzeaz gain, hizkuntza politika ausart eta emankor baten aldeko eskakizuna berresteko hitzordua izanen da, eta nola ez, hizkuntza gutxituen aldeko lege integral baten eskaera entzunaraziko dute.

> Ipar Euskal Herrian euskararen erabilpena %21,5ekoa da –bakarrik %7,7ak du euskara frantsesa baino gehiago edo bezainbat erabiltzen–

PREFETAREN ERASOAK

Koofizialtasunaren beharra ezin hobeki baieztatzen dute azken hilabeteetako Simon Fetet Pirinio Atlantikoetako prefetaren jarrera erasokor sistematikoek, eta horiei erantzuteko hitzordua bihurtu da azaroaren 21eko manifestazioa. "Jendeak ez ditu ulertzen eraso horiek, jendea hase-

rre da eta koofizialtasuna galdetzeaz gain, 'eraso horiei stop!' oihukatzeko momentua izanen da", Casteten hitzetan.

Urriaren lehenean egindako prentsaurrekoan berretsi zuen bere postura gobernuaren ordezkariak: euskarari aitortza ofiziala egiteko herriko etxeek harturiko deliberoak deuseztatu behar dira, bere hitzetan, euskara hizkuntza ofizial gisara aitortzeko eskumenik ez dutelako. Sarako (Lapurdi) eta Baionako herriko kontseiluen deliberoen kontrako salaketak jarriz abiatu zuen bere gurutzada uztailean. Sarako Herriko Etxeak uztailaren 2an euskara ofizialki aitortu zuen herriko hizkuntza gisa, frantsesaren ondoan; eta uztailaren 23an antzeko deliberoa hartu zuen Baionakoak. Bien kontrako helegitea jarri zuen orduko prefet Jean Marie Girierrek. Lehen instantzian ontzat eman zituen helegiteak epaileak, baina dei egin dute bi herriko etxeek. Bordeleko Administrazio Auzitegiaren epaiaren beha dira, eta Frantziako Estatu Kontseiluraino iristeko borondatea agerturik du Baionako auzapez Jean-René Etchegarayk.

"Errealitateaz baino, beldurrez ari dira, uste dutelako koofizialtasuna nahi dugula. Zilegiak sentitzen gara, gure aitortzak sinbolikoak direlako eta ez dutelako arriskuan jartzen Frantziako zuzenbide estatua", adierazi zuen Etchegarayk epaia jakin bezain laster. Funtsean hori da delibero horien estrategia: euskarari ofizialtasuna aitortu beharrean, ofizialki aitortzea euskara lurraldeko hizkuntza dela. Zergatik? Euskarari ofizialtasuna aitortuz gero, Frantziako Konstituzioa luketelako parean deliberoa deuseztatzeko. Urrats argi hori eman zuen Uztaritzeko (Lapurdi) Herriko Etxeak 2014an eta berehala moztu zion bidea orduko prefetak.

Baina adierazpena ofizialtzat eginda ere, badirudi berdin-berdin problematikoa zaiola Estatuaren ordezkariari. Hain justu, beste delibero batzuk eraman ditu auzitara prefetak: gutxienez, Lexantzü (Zuberoa), Itsasu (Lapurdi) eta Arberatzeko (Baxenabarre) herrien kontrako prozedurak abiaturik ditu, eta funtsean, adierazpen berdintsua idatziriko hamabost bat herriko etxe ditu jomugan.

Frantziako Estatuko ordezkariaren hitzeta n, "ofizialki" terminoa erabiltzea da arazoa, euskarari frantsesaren heineko estatusa ematea dakarrelako. Baina Gamarteko (Baxenabarre) kasuak kontrakoa erakusten digu, hitz hori agertzen ez bada ere bere hizkuntza politika kentzeko edota berrikusteko eskaera jaso duelako gutun bidez auzapezak. Hitzez hitz, irailaren 29an bozkaturiko deliberoan zehazturik dute herriko kontseiluak berresten duela "euskara komunikazio-hizkuntza dela, frantses hizkuntzarekin batera". Ondoko azalpena eman dio herriari suprefet den

> Orotara hamabost bat herriko etxek dute ofizialki euskara aitortu herriko hizkuntza gisa, eta delibero guztiak aztertzekoak dituela argi utzi du prefetak

GUILLAUME FAUVEAU

Ezkerreko argazkian Pirinio Atlantikoetako prefeta berria, Simon Fetet. Uztailaren 22an hartu zuen funtzioa eta orduz geroztik euskararen kontrako jarrera erasokor sistematikoa bideratzen dabil. Eskuineko argazkian, prefetaren jarrera salatzeko euskalgintzaren agerraldia, Baionako suprefeturaren aitzinean.

Mathieu Duhamelek: "Idazketa anbiguo horrek pentsaraz lezake ez dela ondare aitortza hutsa, baizik eta badela euskara administrazioko hizkuntza gisa, herriko hizkuntza gisa, frantsesaren pare finkatzeko borondatea". Herriko kontseilarien euskarazko hitzartzeak bultzatu nahi ditu hizkuntza planak, beti ere momentuko itzulpena bermaturik, baita herriko etxearen harreran lehen hitzak euskaraz egitea ere. 120 herritar ditu Baxenabarreko herri horrek, eta beraien artean euskaraz aritzea dute ohitura anitzek, frantsesez trukatzea arrotza eta arraroa zaielarik. Beskoitzeko (Lapurdi) Herriko Etxeari ere gauza bera gertatu zaio.

Larresororen kasua ere hor da, karriken euskarazko izendapena delibero bidez onartu zuena, 2016an. Deliberoa ezeztatzea erabaki du prefetak.

Orotara hamabost bat herriko etxek dute ofizialki euskara aitortu herriko hizkuntza gisa, eta delibero guztiak aztertzekoak dituela argi utzi du estatuaren ordezkariak: Lapurdin, Baiona, Sara, Itsasu, Hiriburu, Uztaritze, Senpere, Azkaine, Hendaia eta Lekuine, Baxenabarren, Baigorri, Donapaleu, Izura, Arberatze, Ortzaize eta Aiherra; eta Zuberoan, Lexantzü. Eraso horiek salatzen ditu Euskal Konfederazioak, are gehiago jakinda orain artean gisa bereko adierazpenak hartuak izan direla, trabarik gabe. Adibiderik esanguratsuena da Euskal Hirigune Elkargoak 2018an egindako aitorpen ofiziala, gaur egun oraindik zutik segitzen duena.

> Peio Dufau eta Paul Molac diputatuek konstituzio lege proposamena aurkeztu izana begi onez ikusten du Euskal Konfederazioak

Baina herrien kontrako erasoez gain, EEP ere begi-bistan harturik du. Harrigarria badirudi ere, Maider Behotegi EEPko lehendakaria eta Euskal Hirigune Elkargoko ordezkari Anita Lopepe galdekatu berri ditu Polizia Judizialak, prefetaren seinalamendu baten ondotik. Ekainaren 25eko biltzar nagusian "interes gatazka bat" izan zelakoan ireki du prozedura, Seaskari bideraturiko dirulaguntza baten harira. Afera da Lopeperen bikotekidea Seaskako lehendakaritako bat dela eta hori izan dela EEPren kontrako ekintza judiziala irekitzeko aitzakia.

Aitzin ere, martxoko biltzar nagusian, suprefetak zalantzan jarri zuen EEPren eta CNFPT Lurraldeetako Funtzio Publikoaren Frantziako Zentroaren arteko hitzarmena. 2013az geroztik martxan da eta funtzio publikoko langileak euskalduntzea du xede. Kasu horretan ere Frantziako Konstituzioko 2. artikulua esku artean, hitzarmena deuseztatu nahi izan zuen –azkenean, gibel egin zuen apirilean–. Ekainean eman zuen kolpe berri bat, Eusko Jaurlaritza jomugan harturik: EEPri zuzenduriko ekarpena emendatzearen alde agertu zen EAEko Gobernua eta hori "atzerriko potentzia" baten esku-sartze gisa ikusita, Atzerri Ministeritzara jotzeko galdetu zien EEPko partaideei –errefusatu zioten berehala–.

KONSTITUZIOA OZTOPO

Berria-k elkarrizketatu berri du EEPko lehendakaria eta erasoak sistematiko bihurtzeak galdekatzen eta kezkatzen duela dio: "Iduri du kisketak jartzen dizkiela lurralde honetan gure eskualdeko hizkuntzaren iraupena bermatzeko aktiboago izan nahi dutenei. EEPren helburua argia da, eta partaide guztiek izenpetu dute: bi hizkuntzak maila berean menperatzea nahi dugu. Hori izenpetzen badugu, eta horretara engaiatzen bagara, zer egiten dugu bermatzeko? Gure rola da, gure ardura. Beraz halako artikuluak baldin badaude [Konstituzioko 2. artikulua], eta pragmatikoki ohartzen bagara traba edo freno bat direla, horren ondorioa da parlamentariek gaiari heldu nahi izatea". Begi onez ikusten du, beraz, Peio Dufau eta Paul Molac diputatuek konstituzio lege proposamena aurkeztu izana urriaren 6an. Zehazki, Konstituzioaren 2. eta 34. artikuluak aldatzea proposatu dute, hizkuntza gutxituei frantsesaren nagusitasuna kontrajarri ez diezaieten, eta dagoeneko 80 bat parlamentariren babesa dute.

2. artikuluak dio Frantziako Estatuko hizkuntza frantsesa dela. Aurkezturiko proposamenean "eskualdeko hizkuntzen erabilera, sustapena eta babesa errespetatzearen" baldintza gehitu diote artikuluari. 34. artikuluak lege esparrua zehazten du eta ondoko paragrafoa gehitu diote: "[Legeak arautzen du] eskualdeko hizkuntzen estatusa, bereziki administrazioan eta zerbitzu publikoetan duen erabilera". Bidea ez dute erraza, Legebiltzarrean eta Senatuan gehiengoa jaso ondoren, Kongresua bildu beharko litzatekeelako, parlamentarien bostetarik hiruen babesa lortzeko.

Euskal Konfederazioak arras begi onez ikusi du diputatuen saiakera, eta babesa adieraziko die azaroaren 21eko manifestazioaren bitartez. Frantziako Estatuan menderaturiko hizkuntza gutxituen aldeko kolektiboak biltzen dituen Pour que vivent nos langues [Gure hizkuntzak bizi daitezen] sareak ere txalotu egin du urratsa: "Pozten gara legebiltzarkideek 2. artikuluaren gaiari heltzen diotelako, prefetek eta epaitegietako aginduek sistematikoki erabiltzen baitute artikulu hau, irakurketa murriztaile baten bidez, gure hizkuntzei ikusgarritasun handiagoa emateko eta bizitza publikoan erabilera handiagoa ahalbidetzeko edozein neurri oztopatzeko".

Oztopoak oztopo, indartsu segitzen du Ipar Euskal Herriko euskalgintzak, eta Parlamentutik, karriketatik zein herriko etxeetatik ematen ari dira euskararen aldeko urrats ausartak. Duda gabe, azaroaren 21 izanen da euskaraz bizi nahia berresteko hitzordu handi horietariko bat.

Inportantea da denak Baionako manifestazioan egotea, euskara azkarki atakatua delako

ANTTON CURUTCHARRY

Antton Curutcharry baigorriarra Euskal Hirigune Elkargoko hizkuntza politikarako lehendakariordea da; hala izan zen Jean-René Etchegaray zenean presidente eta kargu bera bideratu dio Alain Iriartek ere. Pirinio Atlantikoetako prefetak euskararen alde doazen delibero guztiak auzitan jartzen dituen honetan, ARGIAk solastatu nahi izan du berarekin. Egoera larria, tristea eta ulergaitza zaiola dio, eta horregatik zaio inportantea Euskal Konfederazioak antolaturiko manifestazioa, prefetari erakutsiko zaiolako "euskarak duen indar sozial handia".

Zergatik orain datoz prefetaren eraso horiek eta zergatik hain masiboki?

Preseski hau da ez dudan erantzuna! Anitz gauza ez ditugu ulertzen, koherentziarik ez da. Alde batetik, aitzinamenduak ditugu Hezkuntza Nazionalarekin, baxo elebiduna sortzeari dagokionez. Gaur egungo Barne ministroa [Laurent Nuñez] Baionako suprefeta izandakoa da, EEPn egondakoa, eta ez zen batere horrela portatzen. Beldurra dugu modu libroan uzten direla prefeta eta suprefeta. Beharbada inozentea naiz eta beste zerbait bada jokoan, baina ez dut ikusten zer eta oraingoz beste inork ez dit eman bestelako arrazoi seriorik. Edo Euskal Hirigune Elkargoko buruaren [Alain Iriart, ezkerrekoa eta abertzalea] kontra egin nahi dute? Hala bada, tronpatzen dira, ez dute lortzen. Ez dugu ulertzen.

Zuri entzun nizula uste dut... euskarari buruzko orain arteko kontsentsua hausteko interesa dagoela hor.

Galdera bat da, galdekatzen ditut suprefeta eta prefeta: azken 20-25 urteetako kontsentsua hautsi nahi duzue? Ez gaituzte tratatzen solaskide eta lankide bezala, eta hori da harrigarriena. Nahi badute kontsentsua hautsi, funtsezko galdera da zergatik? Aitzineko prefeta, Jean-Marie Girier biziki-biziki gogorra zen, bagenekien nondik heldu zen eta nolako jarrera zuen aitzin, demagun, sare ekologisten kontra. Posizio biziki bonapartista du; Napoleonek sortu zituen prefetak, eta orduko moldea segitzen du, biziki autoritarioa da, goitik eta zentrotik begiratzen dio guziari. Oraiko suprefeta molde berekoa da. Ukan ditugu prefeta eta suprefeta batzuk arrunt desberdinak, solaskideak eta lankideak izan direnak; ardura ez ginen ados, baina artetan aitzinarazi dituzte gai batzuk. Adibidez, duela hiru urte zertifikazioei buruzko kontu administratibo bat desblokeatu ziguten, eta horri esker konpondu zen EGA Euskara Gaitasun Agiriari buruzko arazo bat. Erran nahi dudana da lanean ari garela beraiekin, EEPren biltzar nagusietan hor direla, Barne Ministeritzaren ordezkari gisa, eta beraien rolean izanda ere, lagundu izan gaituzte.

Herriko etxeek euskarari bultzada emateko bide oro mozten du prefetak. Alta, orain artean ere izan dira euskararen aldeko gisa bereko deliberoak harturik.

Suprefetak eta prefetak –nik biak aipatzen ditut beti, tandeman ari direlako– jarrera biziki zerratua dute, eta euskarari buruz hurbiletik segitzen dute dena, euskararen aldeko urrats guziak atzemateko eta guzien kontrako erantzun administratibo edo juridikoa emateko. Aldi oro Frantziako Konstituzioaren 2. artikulua erabilita. Harrigarria da oroitzen garelarik zertako idatzia izan zen artikulu hori. Angeluko auzapez eta Ipar Euskal Herriko diputatu izandako Alain Lamassoure [politikari eskuindarra] izan zen emendakina proposatu zuena [Maastrichteko Ituna izenpetzeko Konstituzioa moldatu behar izan zuten 1992an, eta orduan gehitu zuten frantsesa zela "Errepublikaren hizkuntza"], argi utzita horrek ez zuela tokiko hizkuntzen kontra joan behar, baina ingelesaren parean babesteko zela. Harrigarria da ikustea gure unibertsitateetan tesi doktoralen

%60 ingelesez pasatzen den honetan, debekatzen zaigula barne araudi bat dioena euskarazko erranaldiak frantsesera itzuli behar direla. Arrunt desbideratua izan da 2. artikulua. Paul Molaci [diputatu bretoia] entzun diot erraten Konstituzio Kontseiluaren saldukeria baten aitzinean garela, 2. artikulua desbideratu duelako. Sistematikoki erabilia da tokiko hizkuntzen kontra, ez zelarik hori hastapeneko xedea.

Nola ikusten duzu Paul Molacek eta Peio Dufauk aurkezturiko lege proposamena?
Aterabide bat da. Konstituzioko 2. eta 34. artikuluak aldatzea proposatzen dute, eta 34. artikuluarena interesgarria da, agente publikoei buruzkoa delako eta horiek direlako hunkiak gaur egun prefetaren errekurtsoekin. Baigorriko Herriko Etxea ere auzitara eraman gaitu [Baigorriko auzapeza da Curutcharry] eta azpimarratzen digu agente publikoa "modu eksklusiboan" mintzatu behar dela frantsesez. Lege proposamen horrek badu sustengua, Max Brissonek [senatari eskuindarra] ere erran du babestuko duela eta ez da guti. Erakusten digu euskarak batzen gaituela eta kontsentsua ez dela hautsi. Prefetak eta suprefetak hunki ditzakete hiri handiak, herri ttipiak, eskuinekoak, ezkerrekoak ala abertzaleak... kontsentsua ez da hausten. Jendarteak barneratuta du euskara ez dela iritzi bat, euskara hizkuntza bat dela eta denek defenditzen dute. Aski da begiratzea Ifop iritzi-zundaketei, sostengu handia du euskarak.

Eta Legebiltzarrean? Uste duzu nahiko babes lortu dezakeela lege proposamen horrek?
Ikusi dugu murgiltze ereduari buruzko Molac Legearekin nola aldatu den legegilea, bai Senatuan baita Legebiltzarrean

IRULEGIKO IRRATIA

Antton Curutcharry

ere. Gehiengo handiz bozkatu zuten murgiltze eredua legeztatzearen alde. Indar jakobino batzuk aldatzen ari dira; LFI Frantzia Intsumisoa, adibidez, alderdi horren buruzagia luzaz izugarri jakobinoa izan da, baina aldatzen ari da. Lortu dezaketela sinesten dutela erran digute Dufauk eta Molacek, eta nik ere uste dut posible dela. Baina, denbora da arazoa. Denbora nahikoa ukanen ote dute? RN alderdia ere arazo bat da. Eskuin muturrak mitologia nazionalista du, amesten du sekulan existitu ez den Frantzia bat, hizkuntza eta historia bakarreko Frantzia bat. Traba bat dira.

Arazoa denbora dela diozu, presidentzialak direlako laster?
Bai, eta legealdia ere laster bukatuko zaielako.

Zer garrantzi bideratzen diozu azaroaren 21eko manifestazioari?
Ikusiz azken asteetan Barne Ministeritzako ordezkariak etengabean ari izanak direla euskararen kontra, zinez momentu aproposa da erakusteko euskararen alde indar sozial handia badela. Balioko du ere erakusteko herriko etxeei ez direla bakarrik. Iruditzen zait baitezpadakoa dela denak manifestazioan izatea, euskara azkarki atakatua delako. Ataka horiei erantzun behar zaie, bete ditzagun karrikak.

Euskal Hirigune Elkargoak ere kongresu bat antolatu du abenduaren 3rako. Zein da helburua?
Barne Ministeritzako ordezkariek administratiboki eta judizialki begiratzen diote euskarari, baina guk arrunt beste begirada batetik begiratu nahi diogu. Euskarak batzen gaituela erakutsi nahi dugu, molde positiboan hartu nahi dugu gaia. Horrez gain, momentu biziki ofizial bat bideratu nahi diogu euskarari. Elkargoak bere sostengua erakutsiko dio euskarari, baina finean, orain artean emandako urrats guzien multzoan sartuko da kongresu hori.

Eusko Jaurlaritza ere jomugan hartu du prefetak. Lurraldea ezabatzeko jarrera ageri da hor.
Tristea da. Hexagonoaren mugen kanpotik datorren dirua ikusi du eta administratiboki begiratu dio, Kanpo Arazoetako Ministeritzatik. Ez du kontuan hartzen hemendik eraiki duguna –ituna Eusko Jaurlaritzarekin, beste bat Eusko Jaurlaritza eta Nafarroko Gobernuarekin–. Ez du kontuan hartzen aitzin eraikitakoa eta horregatik da larria, kapable delako guzia desantolatzeko eta zalantzan emateko EEPk 21 urtez eraikitakoa. Hori guzia, hitz biziki tristeak erabiliz, eta gainera, Europa kontuan hartu gabe! Uste dut lotua dela orain ditugun pertsonalitateei; baina goragotik, Parisetik heldu bada manua, orduan gure parlamentariek Barne Ministeritza galdekatu beharko dute, zinez grabea delako gertatzen ari dena. ●

GURE LANAK ZURE BABESA BEHAR DU

Egizu bat urtez urte hazten doan ARGIAko komunitatearekin!

(+34) 943 37 15 45 ARGIA argia.eus/eginargiakoa